

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko azaroaren 20a. IX. urtea. 2.436. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



LURKIZU

→ **Titirijai jaialdian ere, murrizketak.** 'Joan-etorriko txotxongiloak' leloa aukeratu dute aurten, Tolosako Titirijai txotxongilo jaialdirako, eta berezia da gainera, 30. urteurrena betetzen baitute aurten. Krisiak, ordea, eragina izan du aurrekontuetan, eta jaialdi honetan ez da helduentzako zein haurrik txikientzako saiorik izango. Era berean, azaroaren 24tik abenduaren 2ra 12 konpainia bakarrik izango dira oholtzetan. ◦3

Orendaindarrek hondakin organiko guztia kudeatzen dute herrian

Euskal Herriko lehen zero zabor herria da larunbataz geroztik; azken edukiontzi berdea ere asteburuan kendu zuten ◦2



Gorka Egla alkateak eman zuen herriko sistemaren berri. I.G.L.

Bigarren Mailako Aizkora Txapelketa irabazi du Ruben Saralegik

Nafarroako Txapelketa irabazita maila nagusikoan lehiatuko da leitzar aizkolaria, eta «oso pozik» dago; hirugarren sailkatu zen Pellejero aresoarra ◦6


Sartu gure webguneetan

tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info
villabona-aiztondo.hitza.info
alegialdea.hitza.info
tolosa.hitza.info
anoetaldea.hitza.info
ibarraldea.hitza.info

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
[@hitzatolosaldea](https://twitter.com/hitzatolosaldea)



hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"





Azken edukiontzi berdea erretiratu zuten Orendainen larunbatean. Ugalde, Egia eta Errazkin, eskuinean. I.G.L.

Azken edukiontzi berdea kendu dute Orendainen, zero zabor herri bilakatzuz

Adunan auzo konpostajearen lehen gunea inauguratuko dute azaroaren 22an, etzi, 17:00etan

Asier Imaz

Orendain da Euskal Herriko lehen zero zabor herria. Larunbatean eman zuten urrats hori, hondakin tratamendu berriaren aurkezpen ekitaldiarekin. Bertan, Gorka Egia Orendaingo alkatea, Iñaki Errazkin Gipuzkoako Ingurumen diputatua eta Ainhoa Ugalde Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko lehendakaria egon ziren, besteak beste. Birziklatzen ez zen guztia jasotzen zuen azken edukiontzi berdea herriatik era-

manez irudikatu zuten sistema berriaren ezarpena.

Aipatu agintariekin batera, herritarrek eta eskualdeko hainbat udal ordezkari hartu zuten parte larunbateko ekitaldian. Guztiek sistema berriaren nondik norakoak gertutik ezagutu zituzten, nahiz eta Orendainen aurretik udalak lanketa egina izan, etxetz etxe. Horregatik, lehenik eta behin, Gorka Egia alkatea herritarren parte hartzea eskertu nahi izan zuen. Ondoren, beste herriak gonbidatu zituen bide bera hartzera. Ugaldek eta Errazkinek txalotu egin zuten Orendainek hartutako bidea.

Zero zabor herri bilakatzearen ezaugarri nagusia ondorengoa da: Orendainen sortzen den hondakin organiko guztia, herrian bertan geldituko da. Horretarako

bizilagunek konpostajea egingo dute, aukera duenak bere etxeko lurretan, eta eraikinetan bizi direnek, ondoan duten konpostagailu komunitarioan.

Azken edukiontzi berdea herriatik erretiratu ondoren, ekitaldian bildutako guztiek Orendaindik itzuli bat eman zuten, hondakin bilketa sistemaren atalak gertutik ezagutzeko. Lehenengo geldialdian, Txaro Arrona herritarrek konposta nola egiten duen azaldu zuten. Ondoren, herrian jarri diren birziklaguneetako bat bisitatu zuten. Bertan ontzi arinak, papera, pilak, garbigunera eramatekoak, pardedak eta erre-fusa utziko dituzte herritarrek. Lau birziklagune herrigunean jarri dituzte, eta beste hiru auzoetan. Hirugarren geldialdian, konpostagailu komunitarioaren berri eman zuten. Orain gutxi eraiki diren hamalau etxebizitzetako eta haur eskolako hondakin organiko bertan tratatuko dira. Bertatik sortzen den konposta herriko lorategietarako erabiliko dute. Azkenik, eliza atzean dagoen gunea erakutsi zuten. Bertara eramango dute herriko aguazilak birziklaguneetik jasotako hondakinak, eta gune horretatik jasoko dituzte mankomunitateko kamioiek. Gune horretara eramango dute erabilitako beira herritarrek, birziklaguneetan ez baita produktu hori jasoko. Kamioiak gune bakarrera joateak, kostua murriztuko duela esan zuten Gorka Egia alkateak.

Adunan, inaugurazioa

Hondakinen sorrera murriztea, berrerabilpena indartzea eta birziklapen tasak handitzea da Adunako Udalaren konpromisoa, eta bide horretan, hainbat urrats eman ditu herritarren parte hartzearekin. Horietako baten balantzea eta inaugurazio ofiziala egingo dute etzi, 17:00etan. Udaletik herritar guztiak gonbidatu dituzte auzo konpostajearen lehen guneari inaugurazio ekitaldira.

Konpostazank!



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Konpostatze kanpainak etxe ondoan ditugun garai honetan, egokia ikusi dut gure ekokulturaren txoko xume honetan, konposta zer den erakustea eta gure etxeetan konposta bikain bat egiteko oinarriak ematea. Zutabetxo honen ostean, konpostagile titulu bat lortuko duzu eta ongi etorriko zaitu, zeren goizu ala berandu, zure herrian ere konpostatze kanpainak etorriko da eta komeni da prestatuta egotea.

Dakizuen bezala, bizi garen gizartertze honen makina bat zabor sortzen du urtero. Birziklatzea eta berrerabilpenaren esfortzu apur bat egiten dugun arren, eguneroko doaz tonaka zabor ez birziklagarri, kirasduen eta kutsakor zabortegira, gure ekonomia eta ingurumenean eraginez.

Zabor guzti hau erre ere egin daiteke, baina zaborra erretzean, airera CO₂a eta bestelako konpostatu kimikoak askatzen dira. Asko eta asko kaltagarriak gure osasunerako. Inork ikertu al ditu?

Baina ba al zenekien Tolosaldean zabortegira botatzen dugun zaborraren %60a baino gehiago konpost bihurtzeko? Ba al zenekien, zabor guzti hau gure herrian konpost bihurtuko gabe, zabortegietara tonaka zabor gutxiago joango zela, eta gaur egungo gizartertze dugun arazo nagusietako bati konponbidea ipini ahal geniokeela?

Zabor ziklin eta usaintsu batek, konpost gozo eta erabilgarri bat lortzeko, ez dugu elektrizitate gastatu behar, ezta lizentziatura bat ateratu behar ere, konpostatu, bizidunek egiten digute... dohainik! Konposta lortzea oso erraza da, gure sukaldeetan sortzen diren hondarrak konpostagailu batera bota behar ditugu soilik. Janari hondar hauek usteltzen direnak izan behar dute, hala nola, janari gordin eta prestatuak, barazki zatiak, mariskoa, fruitu hondarrak, baita zikindutako paper zatiak ere.

Txuleta baten hezurra konpostatu egiten da, baina sagardo denboraldiko txuleta-hezur erraldoi bat konpostagailuan usteltzeko, urte oso bat behar du, beraz, zenbait hondakin besteak baino azkarrago bihurtzen dira konpost. Gero ez etorri nigana esanez: «*Hi biologo! Lehengo asten soziedadaren jan genizkin hamar txuletak, oaindik konpostagailuan zebiltzek!*».

Behin konposta izango diren

hondakinak konpostagailuan daudenean, gure bizidun txikiak lanean hasiko dira. Pentsa ezazu, guretzat hondakina dena, lurpeko bizidunentzat janari iturri bikaina dela, eta zoruan hondakin guzti hauen presentzia nabari dutenean, lurpetik atera eta gure konpostagailu azpitik hondakin multzo honetan barneratzen dira berataz elikatuz.

Baina, ez pentsa lurpetik metro t'erdiko munstrozarrak joaten direla gure konpostagailura. Ugarienak mikroorganismo eta ondoak dira, hauek dira hondakinak desegiten lehenengoak, ostean bizidun ezagunagoak egiten dute bisita gure konpostagailura: fruitu euli txikiak, intsektuen bel-darrek, zizareek, kukurutxa edo *bitzobolek*...

Gure konpostagailuko bizidun kopurua eta beraien jarduerak, hain da handia, zeren lehen astean, gure konpostagailuko tenperatura 50 graduraino igo daitekeela!

Baina konpost bikain bat lortzeko, zomorru hauei geuk ere laguntza txiki bat eman behar diegu, batez ere, konpostagailu barrera ongi aireztatua egon behar du. Horregatik, hondakinak botatzeaz gain, ahal dugun guztietan nahastu egin behar ditugu, konpostagailu barruan airea egon dadin eta airerik gabeko deskonposaketaz sortzen diren usain txarrik ekidinez.

Kontuz ere hezetasunarekin, zeren gure sukaldeetako hondakin gehienago oso umela izaten da eta beharrezkoa da, hauekin batera, materi organiko lehorra nahastea, egur zati txikiak eta zotzak bikainak dira horretarako. Honela gure, hondakinak lehor mantentzen dira eta usain txar eta bestelako kolore arraroko putzua ekiditen ditugu.

Gure hondakinak aireztatuta eta material lehorrekin konbinatzen baditugu, 6 hilabete inguruan, gure lehen konposta lortuko dugu, elikagaietz betetako konpost beltz eta gozoa, landareentzako, barazterako ezinhobea eta... dohain! Gainera, edukiontziatara askoz ere zabor gutxiago ateratzen dugula konturatuko gara. Zabor bilketaren kostua gutxituz. Eta hemen doa aste honetako galdera ezerosoa: gauzak honela... ez al lukete, birziklatzen eta konpostatzen duten herritarrek, zabor-zerga baxuagoa ordaindu beharko?

Ekokulturaren txoko xume honek, gure inguruko bizidunekin elkarlanean, konpostajea egitera animatzen zaitu, lauzpabost kontzeptu argi edukiz gero, oso esperientzia aberasgarria lortuko duzu, eta ze demonio... bada garaia geuk gure hondakinen kargu egin gaitenez, zeren birziklailak birziklaila, oraindik lan handia dugu egiteko.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI

Etxebizitza. Alegian etxebizitza salgai garajea barne. 8 urte eta oso egoera onean. Sukaldea eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela eta egongela ditu. Guztia kanporuntz begira eta oso eguzkitsua da. Igogailua du zuzenean garajera jaisteko aukerarekin (prezioan bi plazatako garajea barne dago). Interes-

tuek 609 787 551 zenbakira deitu, edota alegi2012@yahoo.es helbidera idatzi.

LANBILA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

30. Titirijai jaialdian ez da helduei zuzendutako saiorik izango

«Izugarrizko murrizketak» jasan dituztela nabarmendu dute, eta 12 konpainiak parte hartuko dute

Itzea Urkizu Tolosa

Joan-etorriko txotxongiloak izenburua hartu du, aurtengo Titirijai jaialdiak; «Ozeano Atlantikoaren bi aldeetako txotxongiloak ezagutu eta alderatzeko helburuz», Hegoamerikako txotxongiloak protagonistak izango dira, Euskal Herrikoekin, Herrialde Katalanetakoekin nahiz Espainiakoekin batera, datorren azaroaren 24tik abenduaren 2ra bitartean.

Aurkezpenean, Tolosako Ekinbide Etxeko Migel Arretxek eta Ana Arretxek, Tolosako alkate Ibai Iriartek eta Kutxa fundazio-ko Mikel Mendartek, jaialdiak 30 urteko ibilbidea egin izana nabarmendu zuten: «Oso harro gaude lortu dugunarekin, ezin dugu besterik esan», azaldu zuten Ana Arretxek. Horrela, 1982. urtean hasitako egitasmo haren bidez, 620 txotxongilo konpainiak parte hartu dute, guztira, Titirijai jaialdian, eta 600.000 ikusle inguru bertaratu dira Tolosara.

Bide honetan, Titirijai «urteroko jaialdi izatetik haratago» joan nahi izan duen proiektua dela azpimarratu zuten Arretxek: «Jaial-



Migel Arretxe, Ana Arretxe, Ibai Iriarte eta Mikel Mendarte, 30. Titirijairen aurkezpenean. ITZEA URKIZU

dirik gabe Topic ez zen posible izango».

Horrela, beraz, hiru hamarkada hauetan fidelitasuna erakutsi dieten ikus-entzuleei eskerrak eman nahi izan zizkieten: «Titirijai belaunaldi belaunaldi transmititu izan da, eta oso pozgarria da, lehen haurrak zirela ikusle moduan etortzen zirenak, orain beren seme-alabekin ere bertaraten direla ikusteak». Honen harira, Titirijai jaialdiak «elkarbizitza, harremanak eta hazkunde ar-

tistak eskaintzen dituela azpimarratu zuten, Tolosako Ekinbide Etxeko arduradunek nahiz Ibai Iriarte alkateak.

Murrizketen urtea

30 urteengatikozaren bestaldean, ordea, Titirijai antolatzaileek murrizketan izan zituzten hizpide: «Aurrekontua %43 jaitsi zaigu, eta ezin izan dugu gehiago estutu; murrizketa izugarrikoa izan da».

Hamabi txotxongilo konpainia

soilik izango dira, honenbestez, aurtengo Titirijain; 20 do 25 konpainia etortzen ziren aurreko jaialdietan.

Emanaldi kopuruari dagokionez, berriz, 2007an 151 ikuskizun eskaini zituzten, eta 101 emanaldi izan ziren 2009an; aurten, 57 ikuskizun besterik ezin izan dituzte antolatu, eta lau aretotik hirura mugatu dute jaialdia. Azkenik, Aranburu jauregiko erakusketarik ez da izango.

o tolosa@hitza.info

Bederatzi txekorrek ihes egin dute N-1 errepidera, auto ilarak sortuz

Tolosako hiltegitik alde egin zuten atzo goizean, eta txekorretako bat hil egin behar izan zuten, Irura parean

I. Urkizu

Auto ilarak izan ziren, atzo goizean, N-1 errepidean, Tolosa parean eta Gasteizeko norabidean, Tolosako hiltegitik bederatzi txekorrek ihes egin zutela eta.

Ertzaintzak 08:25ean jaso zuten txekorren ihesaren jakinarazpena, eta animaliak biltzen saiatu ziren. Hauek, ordea, bigarren aldiz ihes egitea lortu zuten Irura parean, eta txekorretako bat hil egin behar izan zuten ondorioz.

Hau guztia errepidean gertatu zenez, N-1eko Gasteizeko noranzkoko bidea itxi egin behar izan zuten aldi batez, hiltegitiko langileak txekorren bila joan arte.

«Arrakasta handia» izan du Torquemadaren laugarren mintegiak

Antolatzaileek, betiko ikasleez gain, ikasle berriek izena ematea lortu dutela nabarmendu dute

I. Urkizu

Tolosaldean Ikastn agentziak laugarrenez antolatu du aurten, Jesus Torquemadaren eskutik, Nazioarteko Gaurkotasunaren Mintegia, eta Gemma Zelaia arduradunak, guztia «primeran» aterata dela azpimarratu du.

Guztira, 265 ikasle izan dituzte aurten, eta «erronka ikaragarria lortu du Ikastn-ek», antolatzaileen arabera: «Ikasle ohiak fidelizatzea eta ikasle berriak erakartzea lortu dugu».

Mundu zabalean pil-pilean dabiltzan gaiak izan ditu Torquemadak hizpide: AEBetako hautakundeak, Venezuela, Eskozia eta Europako ekonomiaren krisia. Honen harira, ikasleetako gehienek hurrengo urtean mintegia beriz antolatzea eskatu dute euren balorazio orrietan, eta Ikastn-eko antolatzaileek konpromiso hori hartuko dutela azaldu dute.

↓ Egitaraua

AZAROAK 24, LARUNBATA

■ **20:00.** Topic zentroan *Viajeros del carrusel*, Angeles de trapo (Uruguai). Saio irekia.

AZAROAK 25, IGANDEA

■ **17:00.** Leidorren, *Criaturas particulares*, Roberto White (Argentina). Saio irekia.
■ **18:30.** Topic-en, *Siete cabritillos y el lobo*, Los Claveles (Murtzia). Saio irekia.

AZAROAK 26, ASTELEHENA

■ **11:00/14:00.** Leidor aretoan, *La cenicienta y los zapatos de cristal*, Luna Teatro Danza (Madrid). Ikasleentzako saioak.
■ **11:00/14:00.** Topic zentroan, *Mago por casualidad* Teatro de la plaza (Brasil). Ikasleentzako hitzartutako saioak.
■ **11:00/14:00.** Tolosako kultur etxean, *Viajeros del carrusel*, Angeles de Trapo (Uruguai). Ikasleentzako hitzartutako saioak.

■ **18:00.** Topic zentroan, *Mago por casualidad* Teatro de la plaza (Brasil). Saio irekia.

AZAROAK 27, ASTEARTEA

■ **11:00/14:00.** Leidor aretoan, *La cenicienta y los zapatos de cristal*, Luna Teatro Danza (Madrid). Ikasleentzako saioak.
■ **11:00/14:00.** Topic zentroan, *La Odisea*, Bihar Txotxongilo taldea (Euskal Herria). Ikasleentzako saioak.
■ **11:00/14:00.** Tolosako Kultur etxean, *Mago por casualidad*, Teatro de la plaza (Brasil). Ikasleentzako saioak.

AZAROAK 28, ASTEAZKENA

■ **11:00/14:00.** Leidor aretoan, *Blue bird*, Anita Maravillas (Herrialde Katalanak). Ikasleentzako saioak.
■ **11:00/14:00.** Topic zentroan, *Criaturas particulares*, Roberto White (Argentina). Ikasleentzako saioak.
■ **18:00.** Topic zentroan, *Criatu-*

ras particulares, Roberto White (Argentina). Saio irekia.

■ **11:00/14:00.** Kultur etxean, *Etxean goxo*, Rosa Martinez (Euskal Herria). Ikasleentzako saioak.

AZAROAK 29, OSTEGUNA

■ **11:00/14:00.** Leidor aretoan, *Blue bird*, Anita Maravillas (Herrialde Katalanak). Ikasleentzako saioak.
■ **11:00/14:00.** Topic zentroan, *Chodudú*, Caracartón (Andaluzia). Ikasleentzako saioak.
■ **11:00/14:00.** Kultur etxean, *Siete cabritillos y el lobo*, Los Claveles (Murtzia). Ikasleentzako hitzartutako saioak.

AZAROAK 30, OSTIRALA

■ **11:00/14:00.** Leidor aretoan, *El bandido cucaracha*, Titiriteros de Binefar (Herrialde Katalanak). Ikasleentzako hitzartutako saioak.
■ **11:00/14:00.** Topic zentroan, *Cuidado con la Marimonda*,

Manicomio de muñecos (Kolonbia). Ikasleentzako saioak.

■ **11:00/14:00.** Kultur etxean, *Mi Miko*, Los Duendes (Herrialde Katalanak). Ikasleentzako saioak.

■ **18:00.** Topic zentroan, *Cuidado con la Marimonda*, Manicomio de muñecos (Kolonbia). Saio irekia.

ABENDUAK 1, LARUNBATA

■ **17:00.** Leidor aretoan, *El bandido cucaracha*, Titiriteros de Binefar (Herrialde Katalanak). Saio irekia.
■ **18:30.** Topic zentroan, *Mi Miko*, Los Duendes (Herrialde Katalanak). Saio irekia.

ABENDUAK 2, IGANDEA

■ **17:00.** Leidor aretoan, *Chodudú*, Caracartón (Andaluzia). Saio irekia.
■ **18:30.** Topic zentroan, *Siete cabritillos y el lobo*, Los Claveles (Murtzia). Saio irekia.

Erregina beltzaren asteburu oparoa

Juan Garmendia albitzurtarrak irabazi du Tolosako babarrunaren ekizioaren lehiaketa; bere bosgarren txapela da

Imanol Garcia Landa / Tolosa

Tolosako Babarrunaren asteburu berezia izan berri da. Besteak beste, babarrun ekizioaren txapelak egin zuten eta Juan Ugarte mendia albitzurtarrak irabazi zuen. Bere bosgarren txapela izan da aurtengoa, eta hainbat bigarren eta hirugarren sari jasotzina. Bigarren postua Pedro Olano tolosarrarentzat izan zen eta hirugarrena Pako Orbegozo usurbil darrarentzat. Babarrun irabazlearen lakariaren enkantea Bilboko Porrua jatetxeak eraman zuen, 70 euro eskaintz. Ohi bezala, Afrika Elkartzasuna elkartearentzat izan zen dirua.

Ugarte mendiak porru jaso zuen txapela. Aurten uzta gutxi izan dela azaltu zuen: «Uda lehortra izan da, bero handiekita, eta horek uzta gutxi egin du». Sekreturik ez duela dio babarrun ona izateak, baina garbi utzi du lurra «girona dagoen»-in ilbi behar dela. Bere produktio guztia sakatuta du, eta jasotako sariak babarruna saltzen laguntzen diote-lako.

Jende ugari izan zen Triangulo plazan, lehiaketaz aparte azoka berezia ere izan zelako. Bertan hainbat produktu izan ziren erosi-gai. Bestalde, Tolosako Babarrunaren

naren Kofradia mila babarrun errazio inguru banatu zituen herriaren artean. Besteak beste, Berriaguena egitasmoak eta Tolosako Udaberri dantza taldeak mahaia jarri zuten, batak Berriaguena proiektuan laguntzeko eta besteak bere produktua salatzeko.

Babarrunaren Astearen barruan, Txingarta elkarteak Txapela Nork Hobeto Jantzi Lehiaketa egin zuen eta gurutira 36 parte hartzaile izan ziren, horietatik 22 emakumezko eta 14 gizonzko. Emakumezkoetan Leire Arbillaga, Irati Gondra eta Kristina Osorio izan ziren lehenengo hiru postuak lortu zituztenak. Gizonzkoetan, Anjel Gondra, Ignazio Iribarren eta Juan Zubeldia izan ziren hiru lehenak. Parte hartzaile zaharrena Florentino Gastelien izan zen, 94 urterekin, eta gazteena, Eneitz Mesias, hiru urterekin. Txingarta elkarteak bazkideen artean, lehenengo Juan Zubeldia izan zen eta bigarrena Agustín Garmendia.

Lehiaketa gastronomikoa
 Gure Katala elkarteak antolatzen duen lehiaketa gastronomikoko irabazleak Tomas Nuñez eta Jose Manuel Irigoien, Hernaniko Tolosako Kofradia elkarteak, izan ziren. Bigarren sailkatuak Alberto Zubelzu eta Juan Carlos Arecha tolosarrak, eta hirugarrenak Miguel La Tienda eta Jose Mujika legorretarrak izan ziren. Aurkezpen onenaren saria Jose Manuel Soroz eta Pili Irujo berrandak lortu zuten.



Babarrun ekizioaren sari banaketa: Mari Karmen Iradi ekizioaren elkarteak lehiaketa, Pako Orbegozo, Juan Ugartemendia, Pedro Olano, Ibai Iribarte alkatea eta Hasier Del Ros Los zinegotziak. [...](#)



Porrua jatetxeak irabazi zuen lakariaren enkantea. [...](#)



Lehiaketa gastronomikoa lortu zutenak. [...](#)



Txapela Nork Hobeto Jantzi Lehiaketako sariak. [...](#)



Babarrun errazioak banatu zituen kofradia. [...](#)

sarrerak

zozketa
Kilometroak 2013 - aurrekoen ekitaldia
 2 sarrera pare

TXOKUA hitza

*Azaroak 23 / Tolosako Leidor aretoa
 18:00etako satorako sarrera pare bat
 20:00etako satorako sarrera pare bat

Zozketan parte hartzeko, idetu
 Gurekoa hitza 30ak barnean
 943 65 56 95 telefono zenbakia.



Berriaguena egitasmoaren mahaia jarri zuten. [...](#)



Udaberri dantza taldearen bere postuak. [...](#)



Artisautza azoka jarri zuten San Frantzisko etorbidean. [...](#)

Irudia Tolosa



EKOFEMINISMOAZ HAUSNARTZEN

Tolosako Berdintasun salkak eta Urola Garako Berdintasun salkak antolatutako dituzten ekonomia feministar buruzko jardunaldien hirugarren ekimena egin zuten larunbatean Tolosan. Emakumeen denbora bankuko hainbat taldeko kideak elkartu ziren eta besteak beste, ekofeminismoari buruz hitz egin zuten, matxismoa eta kapitalismoaren arteko hainbat azalazteruz. [...](#)

Irudia Leizta



GARAGARDOA NAGUSI, TORREAN

Leiztako Torrea taberna Garagardo Pesta ospatu zuten larunbatean. 45 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzeko. Bazkaltzean Nats&Wats iparraldeko taldeak saioa eman zuten (argazkia), eta goxo gaua kanterretan eman zuten, taberna leporatuz betez. Arratsaldean ere Bengoetxea herritarren garapenez gozatu ahal izan zuten horetarako taberna bertan jarritako pantalla batean. [...](#)

Irudia Tolosaldea



BIZILAGUNEN ARTEKO BAZKARIK

SOS Arrazakeriak dinamizatu duen Bizilagunen egitasmoan zazpi bazkari egin dira Tolosaldean: hiru Tolosan (argazkia), Urola (argazkia), Urola (argazkia), bat Ibarra, bat Larrauren, bat Alkizan eta besteak Asteasan. Egitasmoan bertako familia eta etorriak diren familia elkartu dira bazkaltzen, eta bertako sariak, Ekudor, Sahara, Nikaragua, Honduras, Maroko eta Nigeria herrialdeetakoak parte hartu dute. [...](#)

Irudia Belautza



ERRETIRODUNAK, GUSTURA

Igarandean erretirodunen eguna ospatu zen Belautzan, eta gustura izan ziren parte hartu zutenak. Meza, toka txapelketa, bazkaria, Zerbenio eta Marfukorta bertsoariak Evaristo sibilariaren musika eta oparirik izan zuten erretirodunen egitarau oparoan. Ekitaldia antolatzen lagundu duten zinegotzi eta herritarrei esker eman dizkie Mariano Lazkano alkateak. [...](#)

Gipuzkoako Herria

Martin Sarriena diputatu nagaiaren eta Gipuzkoako Foru Asanbladak antolatutako hitza.

Azaroak 21 TOLOSA
 Kultur Etxea 19:00

Azaroak 28 AZPETA
 San Agustin Kulturgunea 19:00

Elkarri eta parte hartu!

+ 2012 balantzea eu
2013 aurrekontuak

Kirolak↓ **Kirol emaitzak****PILOTA**

LEHEN MAILAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA	
Maila Nagusia	
Pablo Berasaluze	16
Bengoetxea VI.a	22

Etorkizuneko maila

Danel Elezkano	11
Jon Jaunarena	22

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Kadeteak	
Bergara-Aurrera Saiaz	2-18
Aurrera Saiaz 1-Txapagain	22-15
Aurrera Saiaz 2- Zestoa	22-5

Jubenilak

Aurrera Saiaz 1-Oiarpe	22-11
Aurrera Saiaz 1-Oiarpe 1	22-8
Aurrera Saiaz 2-Zazpi It.	16-22
Aurrera Saiaz 3-Hernani	22-1
Aurrera Saiaz 1-Intza	22-18

Nagusiak

Aurrera Saiaz 2-Urnieta	22-3
Aurrera Saiaz3-Gazteleku	20-22
Zestoa-Aurrera Saiaz 1	22-10
Tartaloetxe-Aurrera S. 2	22-6
Aurrera Saiaz 1-Igeldo	1-22
Usurbil-Aurrera Saiaz 2	22-17
Aurrera Saiaz 2-Usurbil	22-20

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA	
9. jardunaldia	
Inter Erder - Ibarra	4-5
Tolosala H. - Egintza T.L.	7-2
Santurtzi - Laskorain	4-4

Sailkapena

1. Ibarra	27 p
2. Tolosala Hirukide	20 p
3. Bilbo CFS	19 p
4. Aurrera	18 p
5. Goierrri	16 p
6. Soloarte	16 p
7. Inter Eder	16 p
8. Sestao	15 p
9. Santurtzi	13 p
10. Laskorain	12 p
11. Buruntza	9 p
12. Zarautz	9 p
13. Egintza Transportes L.	7 p

Hurrengo jardunaldia

Ibarra - Sestao
Laskorain - Tolosala Hirukide
Egintza T.L. - Bilbo CFS

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA	
10. jardunaldia	
Arrasate - Tolosa CF	1-2

Sailkapena

1. Hernani	27 p
2. Touring	22 p
3. Oiarzun	19 p
4. Tolosa	18 p
5. Real Union	18 p
6. Berio	16 p
7. Bergara	16 p
8. Hondarribia	16 p
9. Aretxabaleta	14 p
10. Lagun Onak	13 p
11. Zarautz	13 p

Hurrengo jardunaldia

Touring CD - Tolosa CF

AIZKORA

MAILA NAGUSIKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA		
Finala		
1. Floren Nazabal		39:13
2. Joxemari Olasagasti		40:47
3. Iñaki Azurmendi		42:10
4. Aitzol Atutxa		44:24
5. Unai Otaño		46:56
6. Joseba Otaegi		49:10

II. MAILAKO NAFARROAKO

TXAPELKETA	
Finala	
1. Ruben Saralegi	16:04
2. Xabier Mindegia	16:52
3. Asier Pellejero	19:56
4. Iban Resano	21:01
5. Raul Kastoro	22:19

SOKATIRA

GOMA GAINEKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA	
320 kilotan, bigarren jardunaldia	
A multzoa	
1. Sokarri A	12 puntu
2. Abadiño A	9p
3. Ibarra A	8p
4. Urruña	7p
5. Apurtuarte	4p
6. Conceyos	2p

B multzoa

1. Abadiño B	14 puntu
2. Ibarra B	11,5 p
3. Ñapurak	10,5p
4. Iparralde	8p
5. Baigorri	5,5p
6. Murueta	4,5p
7. Sokarri B	2p

320 kiloko finala

Azaroaren 24an, Abadiño.

SASKIBALOA

LEHEN MAILA	
8. jardunaldia	
Askartza - Bide Bide	80-43

Sailkapena

1. Seky.es
2. Tabirako Baque
3. Lizuan.com
4. Arrasate
5. Mikeldi
6. Atletico
7. Askartza
8. Padura
9. Servical La Peña
10. BLOK Zerbitzuak
11. Bide Bide Donostia
12. Lagunak
13. PFERD Araberri
14. Leioak Zarautz

Hurrengo jardunaldia

Bide Bide - Fundacion 5+11

SENIOR MUTILAK

Take Orbela - Atletico	46-54
-------------------------------	-------

Hurrengo jardunaldia

Astiggarraga - Take Orbela

SENIOR NESKAK

TAKE Aralar - CD Inter.	41-45
--------------------------------	-------

Hurrengo jardunaldia

Eskoriatza - Take Aralar Kirolak

Ruben Saralegi Nafarroako Aizkora Txapelketako maila nagusian ariko da

«Oso pozik» dago leitzarra II. Mailako Txapelketa irabazita; Pellejero aresoarra hirugarren izan da

Iñigo Terradillos Leitza

Ruben Saralegi aizkolari leitzarra maila nagusiko Nafarroako Txapelketan lehiatzera igaro da, iragan ostiralean II. Mailako Txapelketa irabazi ostean. Astebetean jantzen duen bigarren txapela da, hilaren 11n Euskal Herriko III. Mailako Txapelketa ere berak irabazi baitzuen.

Ruben Saralegi leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra aritu zi-

ren Xabier Mindegia (Beintza Labaien), Iban Resano (Dorrao) eta Raul Kastorekin (Urrotz) batera, txapelaren lehian, ostiralean Doneztebeko eskoletako pilotalekuan jokatu zen finalean.

Aizkolari bakoitzak bosna pago-enbor ebaki zituen: bi kanardiko, bi 60 ontzako eta oinbikotat. Saralegik mendeen hartu zituen gainerako lau kontrarioak, 16:04ko denbora eginez. Xabier Mindegia txapeldunordeari 48 segundoko alde atera zion (16:52), eta hirugarren geratu zen Pellejero, berriz, ia lau minutukoa (19:56). Resano ia bost minutura geratu zen (21:01), eta Kastoro (22:19) sei minutu eta 15 segundora.

Txapelketa irabaztearen ondo-

rioz, datorren denboraldian Nafarroako Maila Nagusian lehiatzera igaro da Saralegi, bigarren geratu den Mindegiaren moduan.

«Mailari eusten saiatuko naiz»

Leitzarra «oso pozik» dago azken lorpenarekin. Duela bi urte ere lortu zuen Saralegik Nafarroako Lehen Mailara igotzea, baina, ezin izan zion eutsi. «Aurten gogor saiatuko naiz maila mantentzen», azaldu du.

Hori bai, badaki zaila izango dela: «Nazabal, Larretxea edota Rekondo bezalako izen handiak daude maila honetan; ni gaztea naiz oraindik, eta lanean eta entrenatzen jarraituko dut, maila hobetzeko, eta aizkolari handien parean jartzeko».



Finalean aritu ziren sei aizkolariak, herenegun, sari banaketan. Eskuinean, Otaño eta Otaegi. HITZA

Otañok eta Otaegik ezin izan dute beteranoekin

Floren Nazabalek irabazi du I. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa, seigarren txapela jantziz

I. Terradillos

Aurreikuspenak betez, Floren Nazabal izan zen garaile Arbizun herenegun jokatu zen Euskal Herriko Aizkora Txapelketan. Eskualdeko bi aizkolariak, Unai Otañok eta Joseba Otaegik bosgarren eta seigarren egin zuten, hurrenez hurren.

Nazabal nafarrak 21. finala zuen, eta seigarren txapela jantzi zuen. 39 minutu eta 13 segundoko behar izan zituen bere lana amaitzeko. Aizkolari beteranoenek bete zituzten lehen hiru postuak. Izan ere, bigarren Joxe Mari Olasagasti igeldorria sailkatu zen, minutu eta 34 segundora, eta hirugarren Arriarango Iñaki Azurmendi, izazko txapelduna, bi minutu eta 57 segundora.

Laugarren Aitzol Atutxa dimartarra sailkatu zen, 44:24ko denborarekin. Unai Otaño ibartarrak bosgarren bukatu zuen, 46:56ko denborarekin, eta azken postuan Joseba Otaegi zizurkildarra gara-

tu zuen, 49:10ko denborarekin. Ibartarra, bigarren oinbikoa ebaki ostean, Atutxarengandik bi minutura aritu zen saioaren bukarara arte. Zizurkildarra, berriz, bigarren oinbikoa ebaki ondoren hasi zen moteltzen. «Ahazteko moduko eguna» izan zela adierazi zuen saioa amaitzean.

Miel Mindegia ezkurritarra da Euskal Herriko txapela gehien dituen aizkolaria, hamarrekin. Haren atzetik hiru dira sei txapelarekin, Angel Arrospe leaburuarra, Joxe Mari Olasagasti igeldorria, eta herenegungo garraipenari esker, Floren Nazabal Etxarri Aranazkoa.

Bengoetxea eta Jaunarena Lau T'erdiko Txapelketaren finalean

Oinatz Bengoetxea maila nagusiko finalean ariko da, eta Jon Jaunarena, berriz, etorkizunekoan

I. Terradillos Leitza

Nagusitasunez, 11-22ko emaitzarekin, izan zen atzo garaile Jon Jaunarena leitza Tolosako Beotibarren jokaturiko Elezkanoren aurkako finalaurrekoan. Ondorioz, Untoriaren aurka jokatu du finala, abenduaren 1an.

Maila nagusian, bestalde, Bengoetxea VI.a leitza finalerako sailkatu da, Berasaluzeren aurka, 16-22 irabazi ostean. Martinez Irujo eta Olaizolaren artekoa da beste finalaurrekoa. Datorren igandean jokatu da partida hori, eta orduan ezagutuko da, Bengoetxearen aurkaria.

Satrustegi eta Ibarbia izan dira azkarrenak Ikaztegiako krosean

135 parte hartzaile izan ditu probak; herriko azkarrenak Joxe Mari Garmendia eta Ina Agirre izan dira

Enerritz Maiz Ikaztegieta

Larunbatean izan zen Ikaztegiako XXII. Herri krosa. 135 parte hartzaile izan zituen 10 kilometro luzerako lasterketak, eta Gorka Satrustegi ordiziarra eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan ziren azkarrenak.

Gizonezkoetan, Satrustegik irabazi zuen, 32:27ko denborarekin. Bere atzetik, Imanol Larrañaga azkoitiarra sailkatu zen, 32:55eko denborarekin, eta hirugarren Angel Vazquez lazkaotarra, lau segundora.

Bestalde, emakumezkoetan, Ibarbia 39:54ko denborarekin iritsi zen helmugara lehen postuan. Bigarren saria Maider Korta azpeitiarrarentzat izan zen, eta 40



135 parte hartzaile izan zituen herri krosak. HITZA

minutu eta 39 segundotan geratu zuen erlojua. Atzetik, 41:03ko denborarekin Maider Calleja gasteiztarra sailkatu zen.

Herriko lehen lasterkariarentzat ere izan ziren sariak, urtero bezala. Lehen gizonezkoa Joxe Mari Garmendia izan zen, eta 38:20ko denboran amaitu zuen proba.

Emakumezkoetan, berriz, Ina Agirre izan zen herriko lehena, 54:46ko denbora behar izan zuelarik proba bukatzeko.

Urtero moduan, helduen lasterketa hasi aurretik haurren txanda izan zen, eta hauek ere gustura parte hartu zuten herri krosean.

Iñaxio Perurena 300 kiloko harria altxatzen saiatuko da igandean

Leitzako Amazabal pilotalekuan izango den jaialdian harri jasotze eta aizkora erakustaldiak ere izango dira

I. Terradillos Leitza

Iñaxio Perurena harri jasotzaileak bere marka hobetzeko saiakerako egongo du datorren igandean, azaroaren 25ean, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 12:30ean hasiko den jaialdian. Leitzarrak 5 minutuko saioa egingo du 300 kiloko harri koadroarekin.

Perurenaren saiakeraz gain, erakustaldiak ere izango dira. Eneko Saralegi aizkorarekin ariko da, altueran, bikoteka, Arkaitz Olano eta Jon Rekondo Ruben Saralegi eta Mikel Larrañagaren aurka ariko dira, eta Josetxo Urrutia, berriz harri jasotzen.

Irudia ◊ Aiztondo



DANOK DANENA HIRUGARREN

Espainiako ligan bosgarren sailkatu ostean, Madrilan izan berri den Errege Kopako klubaren arteko Txapelketan hirugarren postua lortu du Danok Danena hal-

terofilia taldeak. Gonzalez, Iriarte, Kortajarena, Sasiain (Jon eta Igor) eta Martinez pultsulariak lehiatu dira, Batis entrenatzailearen gidaritzapean. HITZA

Irudia ◊ Berrobi



HASI DA FRONTENIS LEHIA

Larunbatean ekin zion Berrobiko XXI. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketak. 81 parte hartzaile ari dira lehia: mutiletan 39 bikote, eta 30 banakakoan, emaku-

mezkoetan lau bikote eta misto eran, berriz, zortzi bikote. Datorren larunbatean jarraituko dute partidek, eta finalak abenduaren 7an jokatuko dituzte. I.G.L.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	17°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Kultur asteek jende asko bildu dute Aduna, Amezketa eta Anoetan

Herenegun bukatu ziren hiru herrietan udazkenerako antolatutako kultur ekitaldiak

Rebeka Calvo

Asteburu honetan ere kultur ekitaldi ugari izan dira Tolosaldean. Adunan, Amezketa eta Anoetan, hala ere, igandeko ekitaldiekin bukatu dituzte kultur asteak.


Adunan besteak beste, herenegun, axeri dantzarekin hasi zuten eguna, eta ondoren, kantu jira egin zuten. Jende asko bildu zen frontoian, eta kultur ekitaldiei behar bezalako amaiera emateko bukatzeko barrikotea ere egin zuten.

Anoetan Kultur eta Kirol Astea izan dute azken asteetan. Ekitaldi ugari izan dituzte, eta azken asteburuan Kiliklon jolas parkea izan dute frontoian, haur eta gazteen gozamenerako.

Amezketan, bere aldetik, azoka egin zuten igandean, eta jakiez gain, abereak ere ikusi ahal izan ziren. Produktu guztiekin batera, erronka berezia ere izan zen. Izan ere, PERURKIN gobernuz kanpoko erakundeak apustu berezia bota zien herritarrei. Felix Artola amezketarrak hazitako kalabaza peruarra eraman zuten erakundearen postura, eta jendeak zenbat pisatzen zuen asmatu behar zuten. Goiz guztian jaso zituzten herritarren apustuak, eta bildutako dirua Peruko hiriburuko, Lima, San Juan de Lurigancho auzoko herritarrei bidaliko diete. Enaitz Galartza izan zen irabazlea, kalabazak 39,5 kilo pisatzen zituela esanda.



Adunan kantu jira egin zuten, herenegun goizean. JONE AMONARRIZ



Lehen irudian Adunako frontoia, bestean, Amezketako azoka. JONE AMONARRIZ



Amezketako azokan abereak ere ikusi ahal izan ziren. JONE AMONARRIZ



Anoetako frontoian jarritako Kiliklon jolas parkea. JONE AMONARRIZ

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurak**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa, gaur, 17:30ean, kultur etxean. 3 eta 5 urte arteko umeei zuzendutako saioa da, eta liburutegiak antolatdu.
- **Villabona.** 29. Mendi Astearen barruan, gaur, Gurea zinema aretoan, Kepa Lizarragak mendian gozatzeko aholkuak emango ditu, 20:00etan.
- **Anoeta.** Gabonetako kultur programazioa egiteko bilera gaur, 18:30ean, udaletxean.
- **Alegia.** Kultur astean, gaur, 18:00etan, *Ez dut zigortu nahi* hitzaldia, Nerea Mendizabalaren eskutik, kultur etxean.
- **Villabona.** Irritzi elkarteak antolatutako sukaldaritza ikastaroaren barruan, gaur, behimasaik saltsan eta eskalibada egiten ikasiko dute, 19:00etatik 21:00etara.
- **Ibarra.** Herrirak batzarra egingo du, gaur, 19:30ean kultur etxean, urtarilaren 12ko mani-

festazioa eta Gabonetako plangintzaz hitz egiteko.

- **Tolosa.** Laskorain ikastolaren 2013ko Kilometroak jaiko aurkezpen ekitaldia ostiralean izango da *Kilometroak 2013 hermen da!* izenpean, eta bi emandaldi izango dira, 18:00etan 20:00etan. Sarrerak, 2 euroren truke, erosi daitezke jada Orbela eta Ikatzeta tabernetan eta Laskorain ikastolan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.
- Gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Egin HITZAKo harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI



eta...

... HITZAKen harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



hitza info

harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info